

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOA EGITEKO TXANTILLOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN
DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2018-19 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2018-19

| | | | |
|---|---|---|-----------|
| ikastetxea: <i>centro:</i> | URIBE KOSTA BHI | kodea: <i>código:</i> | 015143 |
| etapa: <i>etapa:</i> | BATXILERGOA | zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i> | 1 |
| arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i> | FILOSOFIA | | |
| osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i> | LENGUA EUSKERA GEOGRAFIA ETA HISTORIA INGELERA | | |
| diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i> | Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia. | | |
| irakasleak: <i>profesorado:</i> | JON BAZIL GURREA AIZPURUA NAGORE PORTILLO BILBAO | ikasturtea: <i>curso:</i> | 2018-2019 |

Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

| <p style="text-align: center;">helburuak <i>objetivos</i></p> | <p style="text-align: center;">ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i></p> |
|--|--|
| <p>Filosofia ikasgaiaren helburuak honakoak dira:</p> <p>1.– Gaur egungo gizarteaz eta hura aldatzeko beharraz gogoeta egitea, eta horretan, datu adierazgarriak biltzea eta aztertzea, lekuan lekuko gertaerak irakurri ahal izateko beharrezkoa den oinarrizko interpretazio pertsonala egituratzeko; Euskadi barruan norberarengandik gertuen gertatzen direnak, batez ere.</p> <p>2.– Norberaren ingurua transformatzeko prozesuak proposatzea, eta horretan, sormena eta konpromiso pertsonala oinarri hartzea, gutako bakoitza aldaketa sozialaren alde urratsak egin ditzakeen eragile potentziala dela ulertzeko.</p> <p>3.– Testu filosofikoen barne-koherentzia eta testuinguru historikoa aztertzeo gai izatea, eta horretan, testuok aurkeztutako arazoak eta emandako argudio nahiz konponbideak identifikatzea, norberaren ekarpen pertsonalak ere barnean hartzen dituzten iruzkin kritikoak egiteko.</p> <p>4.– Ekoizpen sinboliko adierazgarrienen bidez norberaren ingurunearen alderdi sinboliko-komu- nikitiboa ikertzea eta aztertzea, Euskadiko esparru sozio-kulturala modu teoriko-praktikoan ezagutzeko eta, horrela, errealitatea ulertzeko interpretazio-gakoak eskuratzeko.</p> <p>5.– Filosofiaren berariazko baliabideetan oinarrituta, eguneroko gertaerei ikuspegi kritiko-erre- flexibo batetik aurre egiteko baliabide intelektual eta epistemologikoak eskuratzeko.</p> | <p>1.– Ea gai den filosofiaren berezitasuna identifikatzeko eta filosofiak, errealitatea interpretatzeko baliabidea den aldetik, gaur egungo gizartean izan behar lukeen funtzioa zein den jakiteko.</p> <p>2.– Ea gai den filosofiak proposatzen dituen galde-erantzunen ezaugarriez eta gaurkotasunaz gogoeta egiteko.</p> <p>3.– Ea gai den zientziaren funtzioa, esplikazio-ereduak, ezaugarriak, metodoak eta zientzia motak zein diren azaltzeko, eta horretan, ea badakien zer antzekotasun eta desberdintasun dau- den zientziaren eta filosofiaren artean (objektibotasunaren auzia, teoriaren eta errealitatearen arteko bat-etortzea...).</p> <p>4.– Ea gai den errealitatearekin lotutako auzi nagusiak azaltzeko, eta horretan, ea gai den zenbait teoria metafisiko identifikatzeko eta elkarrekin kontrastatzeko, eta ea aintzat hartzen duen zeinen garrantzitsua den metafisika errealitatea eta geure burua ulertzeko.</p> <p>5.– Ea gai den gaur egungo filosofiak gizakia nola kontzeptualizatzen duen aztertzeo eta horri buruz gogoeta egiteko, eta horretan, ea gai den kontzeptualizazio hori euskal kulturaren eta beste kultura batzuetan (Mendebaldekoan, Ekialdekoan, Afrikan, amerindiarren artean...) egiten direnekin alderatzeko.</p> <p>6.– Ea gai den XXI. mendeko gizarte moduak aztertzeo, eta horretan, ea badakien mota asko- tako errealitateak alderatzen, euskal gizarte nolakoa den azaltzen lagunduko dioten ezaugarri eta bereizgarriak mugatzeko.</p> |

| | |
|---|--|
| <p>6.– Norberaren ideien alde bai ahoz eta bai idatziz argudiatzeko gai izatea, eta horretan, norberaren ideiak eta argudioak besteekin kontrastatzea, diskurtso pertsonal koherenteak josteko.</p> <p>7.– Elkarrizketa filosofikoan trebatzea, eta hori geureez bestelako ikuskerekin modu arrazionalan bat egiteko bidetzat hartzea, haren bidez errealitateari buruzko norberaren ikuspegia eraikitzeko.</p> <p>8.– Lan intelektual autonomorako oinarrizkoak diren prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea eta aukeratzea, idatzizko iturrien eta iturri digitalen (Internet) bidez; lortutako informazioa kontrastatzea, aztertzea, sintetizatzea eta ebaluatzea, arazoak zorrotz aurkeztea ezaugarri duten eztabaida arrazionalen bidez; eta informazio hori guztia jarduera filosofikoetan eta jarduerokin lotutako ekoizpenetan erabiltzea.</p> | <p>7.– Ea gai den Bigarren Modernitateak gure eguneroko bizitzan eta gure inguruko pertsonenean izandako eragin itzelaz gogoeta egiteko.</p> <p>8.– Ea gai den dimentsio sinbolikoa kulturaren elementu bereizgarria dela ohartzeko, eta ea hori lotzen duen euskal kulturarekin.</p> <p>9.– Ea badakien azaltzen komunikazioak zer-nolako funtzioa izan duen gizakiaren, gizartearen eta kulturen garapenean (euskal gizarte eta kulturarenean, batik bat), eta, alde horretatik, ea gai den esplikatzeko hizkuntzak, gizakiak munduarekin erlazionatzeko eta errealitatea interpretatzeko darabilen baliabide sinbolikoa den aldetik, zer-nolako garrantzia duen.</p> <p>10.– Ea gai den Filosofia Politikoaren funtzioa, ezaugarriak eta auzi nagusiak zein diren azaltzeko: estatuaren jatorria eta legitimitatea; norbanakoen eta estatuaren arteko harremanak; indarkeria politikoa; ikuskera politiko desberdinen arteko akordio eta kontsentsuak funtsatzeko aukera... Eta horretan, ea aintzat hartzen duen filosofiak Mendebaldeko teoria politiko handietan izandako garrantzia.</p> <p>11.– Ea gai den gure erlazio etiko eta politikoen ereduaz eta erlaziook dakartzaten ondorio sozialez gogoeta egiteko.</p> <p>12.– Ea gai den estatu-nazioak Bigarren Modernitatean duen gaurkotasunaz eztabaidatzeko, batetik, eta berdintasun eta inklusio unibertsala ezaugarri izango dituen gizarte transnazional batera igarotzeko proposamenak egiteko, bestetik.</p> |
|---|--|

| | |
|--|--|
| | |
|--|--|

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

1. Ebaluazioa:

1. gai multzoa. Ikasgai eta ikasturte guztietan berdinak diren edukiak
2. gai multzoa. Filosofia, Ezagutza, Errealitatea

2. Ebaluazioa:

2. gai multzoa. Filosofia, Ezagutza, Errealitatea
3. gai multzoa. Gizakia, Gizartea, Kultura

3. Ebaluazioa:

4. gai multzoa. Arrazoimen praktikoa: Etika eta Filosofia Politikoa

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Apunteen jarraipena, testuen analisia, proiektuen metodologia, talde eztabaidan oinarritutako metodologia kooperatiboa, bakarkako barne-hausnarketa lana...

Bestalde, ondoko ARAZO EGOERAK/PROIEKTUAK landuko ditugu:

- 1) 1go ebaluaketan: ERREALITATEA ETA ITXURA (Euskadiko Filosofia Olinpiadaren gaia) lantzeko bideo bat egitea taldeka.
- 2) 3. ebaluaketan:
 - a) BOLUNTAS erakundearekin ikasleak bolondres bezala lan egiteko proiektu bat.
 - b) Politikaren gaia lantzeko, nolakoa behar duen izan gizarteak pentsatzeko, ikasleek Uribe-Kostako sinegotsiei elkarrizketak egin eta

grabatzea, haien gizarte idealari buruz.

BALIABIDEAK:

- Baliabide analogikoak

Testu libururik ez da izango.

Apunteak, fotokopiak, Interneteko baliabideak, ordenagailuak, sakeleko telefonoak erabiliko dira ikerketa egiteko

- Baliabide digitalak

Ikasleek prestaturiko materialak.

Google + ; bertan ikasleek ekarpen pertsonalak egingo dituzte.

Google Classroom; bertan irakasleak agindutako lanak bideratuko dituzte ikasleek.

Euskadiko Filosofia Olinpiadetan parte hartuko dugu lehenengo ebaluazioan "Errealitatea eta itxura"-ri buruzko proiektua landuz (bideo, argazki, iruzkin eta dilema moralak) .

Hirugarren ebaluazioan, BOLUNTAS erakundearekin proiektu etiko bat garatuko dugu.

| | |
|---|--|
| <p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p> | <p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p> |
| <p>Gaia gainditzeko ebaluaketa bakoitzean idatzizko frogak, hau da, ebaluaketa-</p> | <p>Frogen balioa:</p> <ul style="list-style-type: none">• Azterketak: Aipatutako frogak |

| | |
|---|--|
| <p>azterketak gainditu beharko dituzte.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aipatutako frogak (azterketak) notaren % 30 hartuko du. • Notaren % 10, gelako lana, klaseko jarrera, eta ikasleei eskatutako lanak (ikasle guztiei lan berdina) izango da. Hau da, arlo horietan huts eginez gero, notaren %10 arte deskonta daiteke. • Notaren % 60 ebaluaketa bakoitzean egingo diren bi talde-proiektuak izango dira (bideoa, aurkezpena, BOLUNTAS proiektua, liburu irakurketa).. <p>Ebaluaketa gainditzeko, gutxienez 10-etik 3-ko kalifikazioa izan beharko dute ikasleek esparru bakoitzean (frogak, jarrera, talde-proiektuak)</p> | <p>(azterketak) notaren % 30 hartuko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektuak: %30 proiektu bakoitza (2 ebaluaketako). • Jarrera: Notaren % 10 gelako lana, klaseko jarrera, euskararen erabilera eta ikasleei eskatutako lanak (ikasle guztiei lan berdina). Hau da, arlo horietan huts eginez gero, notaren %10 arte deskonta daiteke. <p>*Bi proiektu egiteko denborarik ez izatekotan, portzentaiak honakoak izango dira:</p> <p>Azterketa: %45 Proiektua: %45 Jarrera, lanak: %10</p> <p>Ebaluaketa gainditzeko, gutxienez 10-etik 3-ko kalifikazioa izan beharko dute ikasleek esparru bakoitzean (frogak, jarrera, talde-proiektuak)</p> |
|---|--|

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

Errekupezioko aukera: Ebaluaketa bakoitzean, azkenengoan izan ezik, lehen azterketa errekupezioko aukera egongo da, azterketa berezitua eginez edo ondorengo azterketetan galdera bereziak erantzunez.

Kurso bukaeran ohiko azterketa egongo da gainditu gabeko ebaluaketak gainditzeko, eta hau(ek) gainditzen baldin ez bada/dira, ez-ohiko azterketara joan beharko dira ikasleak, ikastaroko gai guztiekin. Ez ohiko ebaluazioaren nota azterketan aterako

nota izango da, hau da, ikasturtean zehar egindako lana ez da kontuan hartuko.

OHARRAK / OBSERVACIONES

Bestalde, Ikastetxeak dituen proiektuak kontuan izango dugu eskolak antolatu eta ikasleak baloratzeko orduan:

Agenda 21: Kontsumorren kudeaketa arduratsua bultzatu eta ikastetxe-ingurunearen alde lan egiteko konpromisoa baloratuko da.

Hezkidetzaz (Aniztasuna): Sexu eta identitate aniztasunarekiko errespetua eskatu eta baloratuko da. Hezkuntza komunitatean ikasle guztien parte hartzea bultzatuko da.

HTB: Gure Hobekuntza Planean eta Hezkuntza Proiektua adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira.. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako txantiloia erabiliko da.

IKT: Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazioa bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Normalizazioa: Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu. Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen.